

Zinema

Beti geratuko zaigu Zoragarrieta


“Bakoitza bere zoroak bizi du”, dio esaera zaharrak, baina nago ez ote legokeen egokiago pluralean: “Bakoitza bere zoroek bizi dute”. Nire kasuan, aitortzen dut Lewis Carrolek Alice Liddellentzat asmatu zuen mundua dela bizi nauten zoro horietako bat. Beharbada horrexegatik asmatua diot herrialde horri ustez nik bakarrik erabiltzen dudan izena: Zoragarrieta. Edozein dela ere nire jardunaren gaia, ia beti aurkitzen dut Zoragarrietara joan-etorriko txangoa egiteko zuloren bat, horretarako ariaren logika behartu eta logikaren haria bihurritu behar badut ere sarri.

JOXERRA GARZIA

GAUZAK HORRELA, beldurrez joan nintzen Tim Burtonek Carrolle obra abiapuntutzat hartuta osatu duen filma ikustera. Ohi bezala, ahalik kritika gehien irakurtzen saiatu nintzen filma ikustera joan baino lehen. Eta, ohi bezala, ezer irakurri ez banu baino okerrago geratu nintzen: ez lurrerako, ez zerurako, hainbestekoa baitzen kritiken arteko desadostasuna.

Aurkakoetan gogorrena, euskarazkoa (Gontzal Agoterena: *Berria*, 2010ko apirilaren 20koan). Garai bateko Tim Burton laudatu eta gero, egurra banatzeari ekiten dio kritikariak kupidarik gabe. Filmari, noski, baina baita filmaren aitzakian Burtoni berari ere, gordin: “Lotuta edo salduta, zuzendariak ez du jakin izan nola gobernatu Disneyren *diktadura*”, esaterako, edo “Alice aitzakia bihurtu du film *topiko* eta *atzerakoi* bat egiteko”, edo “Kolore biziak, Deppen keinu errepikakorrek eta pertsonaien janzkera ustez originalek ezin dute ezkutatu *erabateko traizioa*” (hitz etzanak neuk etzanarazi ditut, zutik uzteko gogorregiak iritzita).

Egia da Burton nahi beste eta gehiago aldentzen dela Carrolle liburu(eta)tik (filmaren hari nagusia berak asmatua da, ez da Carrolleanean agertzen), baina hori beti egin izan du Burtonek (*Big Fish*en, esaterako). Beti bezala, mundu jakin baten bertsio jakin bat eskaintzen digu Burtonek, ondo ere berea, baina etengabe esaten ari zaigu zertan ari den,



Tim Burtonen *Alice in Wonderland* filmeko irudi bat goian. Gisa horretakoa irudikatu du zinegileak Chesire-ko katua.

ez du inor engainatzeko asmorik. Nire ustez, horrexegatik bihurtu du Alice emakume heldu, eta horrexegatik gogoratzen digute behin eta berriz aurreko aldi Zoragarrietan izan zenean ume moko bat baino ez zela Alice.

Beldurrak beldur, nik gustura ikusi nuen filma, eta iruditu zitzaidan pasarte gehienetan primeran lortua dagoela Carrolle zoroetako mundua. Mundu horretakoa ez diren osagaiak sartu dituzenez, eta filma ez baita bi orduko iraupenera helzen, nire kuttun diren pertsonaia asko geratu zaizkio Burtoni filmetik kanpo, eta horixe da, nire ustez, filmak exkaxen duena. Hala eta guztiz ere, sartu ahal izan dituen pertsonaia apurrak carrolldar peto-petoak begitandu zaizkit niri.

Nire zoroetako beste bat ere agertzen da filmean: Chesire-ko katua, literatura eta filosofia bikain uztartzen dituen sorkaria. Liburuan, erabat desagertu eta gero ere irribarre airean uzten du katuak (irribarre hutsa, hortzezpainik gabea). Filmean agertzen dena, aldiz, askoz katu arruntagoa da: badaki desagertzen, baina ez desagertu eta gero irribarrean airean zintzilik uzten. Zinemari hirugarren dimentsioa erantsi badiote ere, bada hitzek bai baina irudiek sekula izango ez duten beste dimentsio bat.

Kritikak kritika eta euskarria gorabehera, beti geratuko zaigu Zoragarrieta. ■